

Lontxo Oihartzabal jn.  
Lehendakaria

## 05/10 IRIZPENA

Javier del Campo jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Miren Izagirre and.  
J. Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Ochoa jn.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko urriaren 13ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: EAEko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko, Helduen Hezkuntzako eta Zereginen Ikaskuntzako Sekzioetako irakasleen lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa.

### SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio EAEko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko, Helduen Hezkuntzako eta Zereginen Ikaskuntzako Sekzioetako irakasleen lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruzko aginduzko txostena ahal denik lasterren eman dezan. Halaber, ikastetxeetako zuzendariak egindako memoria eta Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak emandako txostena igorri dizkio.

### I.- AURREKARIAK:

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak haxe dio 13. artikuluan: "Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langileria beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu zerrendak". Ildo horretatik, 14.1 artikulua haxe jaso du: "lanpostu zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratupeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz".

Bestalde, Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeak lanpostu zerrendak arautu eta berauek izan behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu, eta 47/1993 Dekretuak, berriz, lanpostuen hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak arautzen ditu.

Goian azaldutakoa betetzeko, elkarren segidako lanpostuen zerrendak argitaratu dira. Oraingoan, EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistrenak, DBHko lehen ziklokoak, Helduen Hezkuntzakoak eta Zereginen Ikaskuntzako Ataletakoak igortzen dira, beti ere, 2005-2006 ikasturtekoak.

## **II.- EDUKIA:**

Dekretu proiektu honek lau artikulua, hiru xedapen gehigarri, eta azken xedapen bat ditu. Artikuluetan aipaturiko eranskinak ere gehitu dira.

Lehenengo artikulua 2005-2006 ikasturteko lanpostu zerrendak onesten ditu eta lanpostu zerrenda horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko irakasle hauei erreserbatu zaizkie, alegia: EAE-ko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako (II. Eranskina), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko (III. Eranskina), Helduen Hezkuntzako (IV. Eranskina), Zereginen Ikaskuntzako Sekzioetako (V. Eranskina) eta Lurralde Ordezkaritzetan dauden plazetako (VI. Eranskina) irakasleei. Eranskinetan ikastetxez ikastetxe ageri dira espezialitateen, hizkuntza eskakizunaren eta derrigortasunaren arabera identifikatutako lanpostuak.

Bigarren artikulua, I. eranskinean jasotzen den ikastetxe publikoa sortzen du.

Hirugarren artikulua lanpostu ibiltarien ezaugarriak azaltzen ditu eta laugarrenak dio hornidura sistema lekualdatze lehiaketa bidez izango dela, lanpostu berezien kasuan izan ezik, azken honetarako lehiaketa berezia antolatuko delako.

Lehen xedapen gehigarriak berariazko osagarriaren eta dedikazio bereziko osagarriaren zenbatekoak ezartzen ditu, baita ere DBHko lehen zikloko irakasleen lanpostu mailako osagarriaren gehikuntza. Bigarrenak zuzendaritza karguen berariazko osagarria finkatzen du eta hirugarrenak, aldiz, lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizuna irailaren bata baino lehen lortu behar dela dio.

Azken xedapenak dekretua indarrean noiz jarriko den adierazten du.

### III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

EAEko maisu-maistren kidegoko 2005-06 ikasturteko LPZa, 9.725 irakasleez osaturik dago, aurreko ikasturteetako kopuru bera, alegia, eta ikastetxe publiko mota desberdinetan irakasten dute, nagusiki, Haur eta Lehen Hezkuntzakoetan (7.635), eta kopuru handian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoetan (1.548), eta HHEkoetan (447). Azken bi hauetan esku hartzen dute Bigarren Hezkuntzako hainbat irakaslek ere.

Lanpostuetako hizkuntza eskakizunei dagokienez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan irakasleen %90 baino gehiago dira HE2 dutenak, DBHn bi puntu igo ondoren %85,7 dira eta HHEn %39,6, aurreko ikasturtean baino bi puntu eta erdi gehiago, alegia.

Maisu-maistren LPZa destinoko ikastetxearen eta hizkuntza eskakizunaren arabera. 2004-05 eta 2005-06.

<i>Destinoa</i>	<i>2005-06</i>			<i>2004-05</i>		
	<i>Guztira</i>	<i>HE2</i>	<i>HE2 %</i>	<i>Guztira</i>	<i>HE2</i>	<i>HE2 %</i>
Haur eta Lehen Hezk. Ikastetxeak	7.635	6.913	%90,5	7.559	6.785	%89,8
DBHko ikastetxeak (1. zikloa)	1.548	1.326	%85,7	1.625	1.362	%83,8
HHEko ikastetxeak	447	177	%39,6	442	164	%37,1
Zereginen Ikaskuntzako Sekzioak	48	24	%50,0	50	24	%48,0
Ordezkaritzak - Poltsak	47	30	%63,8	49	32	%65,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.725</b>	<b>8.470</b>	<b>%87,1</b>	<b>9.725</b>	<b>8.367</b>	<b>%86,0</b>

Lanpostu organikoez gain, badira ezaugarri bereko beste batzuk, funtzionamenduzko lanpostuen osagarri; hauetan, DBHko 1. mailan hautazko irakasgaiak ematen dituzten irakasleek osatzen dute talderik garrantzitsuena (137), eta ondotik, etorkinei hizkuntza laguntza ematen dietenak. Agerienez, ia 10.000 irakaslek osatutako kolektiboaren aldean kopuru txikiak dira.

LPZ hau oro har destinoko ikastetxeen artean nola dagoen banatuta aztertzen badugu, talderik handiena hartuz gero, hau da Haur eta Lehen Hezkuntza, ageri da joan den ikasturtean baino 76 maisu-maistra gehiago daudela, eta honek esan nahi du %1 gehitu direla, hau da, azken lau urteetan baino %3,7 gehiago direla.

Maisu-maistra kopuruaren bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan. 2001-02tik 2005-06ra.

<i>Irakasle kopurua</i>	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>2005-06</i>	<i>Δ 4 urte</i>	<i>Δ azken urtea</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	7.363	7.559	7.635	%3,7	%1,0

Azkenik, baliabideak eta beharrizanak alderatu behar dira, eta lehenengo adierazlea, arreta jaso behar duen haur kopurua izango da. Eskoletan irakasleen lanpostu organikoak gehitzeko aipatu ditugun bi baloreak doi-doi bat datoz ikastetxeetan gehitu diren ikasgelen kopuruarekin (%3,6 azken lau urteetan eta %1,1 azken urtean).

Unitate kopuruaren bilakaera (ikasgelak) denbora tarte berean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

<i>Unitateak etapa bakoitzeko</i>	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>2005-06</i>	<i>Δ 4 urte</i>	<i>Δ azken urtea</i>
Haur Hezkuntza (2-5 urte)	1.993	2.089	2.096	%5,2	%0,3
Lehen Hezkuntza	2.737	2.757	2.803	%2,4	%1,7
Haur eta Lehen H. guztira	4.730	4.846	4.899	%3,6	%1,1

2. eranskinean, hizkuntza ereduaren arabera xehatuko dugu aurreko taula. Alabaina, baliabideok (irakasleak eta ikasgelak), ikasleek mugatzen dituzten beharrizanekin alderatzerakoan, lehenik eta behin ageri da Kontseilua-ren 2002-2004 txostenean deskribatutako joerak, jaiotza tasaren bilakaerari eta sare publikoaren aukera gero eta hedatuagoari dagokionean, badutela bere isla azkeneko datuetan. Halatan, bada, Haur Hezkuntzako 2. zikloan sare publikoak %49,8 erdiesten du eta Lehen Hezkuntzan zazpi hamarren igo eta %48,5 erdiesten du, aurreko ikasturteetako ildori jarraikiz.

Sare publikoan (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan) matrikula egiten duten ikasleen kuotaren bilakaera, etapen arabera.

	<i>2001-02</i>	<i>2004-05</i>	<i>2005-06</i>	<i>Δ 4 urte</i>	<i>Δ azken urtea</i>
Haur Hez. 2. zikloa	%49,3	%49,7	%49,8	%0,5	%0,1
Lehen Hezkuntza	%46,0	%47,8	%48,5	%2,5	%0,7
Haur eta Lehen H. ikastetxeak	%47,1	%48,5	%48,9	%1,8	%0,4

Ikasle kopuruaren gehitze nagusia 2 urteko mailan gertatu da, 2003. urtean jaiotako haurretan, alegia, izan ere, jaso genuen bezala, gorakada handia gertatu zen, 1.100 baino gehiago 2002. urtearen aldean, hau da, %6ko igoera. Izan ere, orain egiaztatu dugu 2 urteko geletan aurreko ikasturtean baino 511 haur gehiago matrikulatu dituztela ikastetxe publikoek ikasturte honetan, eta 7.866 izatetik 8.377 izatera iragan dira, hau da, %6,5 gehiago.

Ikastetxe publikoetako haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle kopuruaren bilakaera etapan arabera. 2001-02 eta 2005-06 ikasturteak.

	2001-02	2004-05	2005-06	$\Delta$ 4 urte	Azken urtea
Haur Hezkuntza. 2 urte*	7.306	7.866	8.377	%14,7	%6,5
Haur Hezkuntza. 3-5	24.047	26.584	27.416	%14,0	%3,1
Lehen Hezkuntza	44.512	47.038	48.742	%9,5	%3,6
Haur eta Lehen Hez. Ikastetxeak	75.865	81.488	84.535	%11,4	%3,7

(\*) Eranskinean, 1. taulan, matrikula publikoaren beste aldaera batzuk 2 urteko mailan.

Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta Lehen Hezkuntzan, ikasturte honetan ikasleak %3,1 eta %3,6 gehitu dira hurrenez hurren. Azkenean, aztertu ditugun bi denbora tarte hauetan matrikulatutako ikasleen eta irakasleen kopuruaren aldakuntza islatzen duten datu globalak hartuta (azken lau urteak, azken urtea), agerikoa da ez datozela bat.

Halatan, bada, EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan oro har matrikula %3,7 igo da aurten eta %11,4 azken lau urteetan, lanpostuak, ordea, %1 baino ez dira igo aurten eta %3,7 azken lau urteetan, hasieran ikusten genuen bezala.

Islatzen den proportzio ezaren ondorioz nabarmenena ikasle/ikasgelako ratioa handitzea izan da. 2 urteko ikasgeletan 15,8 ikasle daude batez beste, hizkuntza ereduak eta eremuak (herriak, hiriak) bereizi gabe. Aipatutako 2002-2004 txostenean esaten genuen 2 urteko ikasgelak saturazio teknikoko egoeran zeudela EAEko 56 hezkuntza barrutietarik 20tan. Bistan da, aurtengo datua are handiagoa izango da.

Haur Hezkuntzako 2. zikloan, ikasle/ikasgelako ratioa 17,5 da batez beste, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetakoaren antzekoa. Nolanahi den ere, adin handiagoko ikasleen -nerabeen eta gazteen- etapetan, non jaiotza-tasak matrikulan egindako eragina kontrako noranzkoan doan, ratioak ez dira handiagoak, orokorrean.

Ikasle/ikasgelako ratioa mailen arabera (sare publikoa). 2005-06 ikasturtea.

	<i>Gehienezko ratioa</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Gelak</i>	<i>Ratio orokorra</i>	<i>Banaketak eta haut. aplikatuta</i>
Haur Hez. 2 urte	18	8.377	531 (1)	15,8	
Haur Hez. 2. zikloa	23	27.416	1.565 (1)	17,5	
Lehen Hez. 1. zikloa	25	17.158	970	17,7	
Lehen Hez. 2. zikloa	25	16.363	940	17,4	
Lehen Hez. 3. zikloa	25	15.221	893	17,0	
DBH, 1. zikloa	25	15.523	822	18,9	18,5 (inguru)
DBH, 2. zikloa	25	14.248	869 (2)	16,4	14,5 (inguru)
Batxilergoa	30	15.111 (3)	644	23,5	19,0 (inguru)
LHEZ	25	6.182	430	14,4	
LHGZ	25	7.926	530	15,0	

(1) 2 eta 3 urteko ikasleen gela mistoak paretsu banatzen dira bi adinon artean.

(2) Curriculum aniztasuneko 126 gelak barne.

(3) Guztietatik (16.591), urrutiko batxilergoko ikasleak deskontatzen dira (1.480). Gaueko taldeak sartzen dira.

Halatan, bada, ratorik txikiena, DBHko 2. zikloan (14 urtetik 16ra bitarteko gazteak) eta Lanbide Heziketako bi zikloetan dago: 15 bat ikasle gelako, araubide normaleko gelez gain, curriculum aniztasunekoak eta banaketakoak kontuan hartuta. DBHko 1. zikloan eta Batxilergoan 18 edo 19 daude batez beste. Laburbilduz, kopuruak Haur eta Lehen Hezkuntzako antzekoak dira eta inoiz txikiagoak ere. Hori guztia ikasle kopuruak etapa desberdinetan izan duen bilakaera demografiko desberdinaren ondorioa da.

Bigarren Hezkuntzako ikasleei taldean/ikasgelan banako arreta hobea eskaintzeko aukeran erdietsitako lorpenak ez dira betetzen adin txikiagoetan, ezta hurrik eman ere, hain zuzen ere haurrek autonomia txikiago izanda irakaslearekin elkarrekintza zuzenaren behar handiagoa duten adinean.

Eskoletako lanpostuen urritasuna beste alor batean ere igarri egiten da, antolakuntzan alegia. Taldeari/ikasgelari emandako eskola-arretaz bestelako zeregin guztiak irakasteko ez diren orduetako funts bakar batean sartu direnez, zenbait proiektutako arduradunen orduak bertan sartu dira eta, hartara, joan den ikasturtean zuzendaritza eta administrazio zereginetarako denbora murriztu egin zen.

9/2004 iruzkinean esan genuen ikasturte hasierako zirkularra ez zeto-rrera bat 228/2002 Dekretuarekin. 2005-06 zirkular berriak ere, ageri denez, ez du aurrekoa aldatzen. Gogorarazi behar dugu kaltegarria dela antolakuntzaren aldetik zuzendaritza taldearentzat eta Administrazio Kudeaketako Ar-

duradunarentzat (AKA) zehaztutako denbora murriztea. Gehientsuetan, horren ondorioz, aipatutako Dekretuko lan baldintzak arautzeko akordioak finkatzen duena baino %15 eta %30 bitartean gutxiago da denbora. Eranskinean, 3. taulan, eragin hau jasotzen da, ikastetxearen tamainaren arabera eta Administrazio Kudeaketako Arduradunaren eginkizunen zerrendaren arabera xehatuz.


Beste murrizketa bat dakar, berrikuntza alorrekoa eta premia berrien arretakoa. Ez da berriro egin behar eginkizunen eta atazen zerrenda, hauetariko batzuek ordu kopuru jakin bat dute esleituta, eta ikasturte hasierako zirkularrak edo ebazpenak irakasteko ez diren ordu kupo globalean sartzen ditu; begi bistakoa esan beharra dago, haatik, eginkizun berriek baliabide berriak izan behar dituztela lagun, alegia, kasu honetan, giza baliabideak. Adibide gisa, eranskinean ebazpenak figura hauetariko bati, ikastetxeko teknologia berrietako arduradunari, ematen dizkion eginkizunen zerrenda sartu dugu.

Berriz ere aipatu behar dugu ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxe pribatuak tratamendu desberdina jasotzen dutela, izan ere, azken hauetan, Sailaren iritzian aitzindariak diren zenbait esperientzia abiatzerakoan - ingelesaren sarrera goiztiarra 4 urterekin, Ulibarri programa- laguntza osagarriak izan dituzte irakasle berriak kontratatzeko.

Kontseiluak lehenago ere aurkeztu dituen beste zenbait arazori dagokionez, lanpostuen politikak isla izan du plangintzan, aipatu behar ditugu berden:

a) Lanpostuak zahartzea. Lehendik ezagutzen ditugun datuei beste bat gehitze arren, oraingoan badugu kanpoko erreferentzia bat, zehatz esateko, TIMSS 2003 nazioarteko azterlana, alegia, Euskadik lagin esanguratsu batekin parte hartu du. DBHko 1. zikloko ikasleei matematikak irakasten dizkieten irakasleen adinen banaketari erreparaturaz gero, ageri da beheko taulan parte hartu duten estatuetan oro har irakasleen %47k 40 urte baino gutxiago dituela eta Euskadin, berriz, portzentaje hau %25era baino ez da iristen (ikastetxe publiko eta pribatuak oro har zenbatuta).

Ikasleen banaketa, DBHko 2. mailako matematika irakasleen adinaren arabera eta, zenbait kasutan, DBHko 1. mailakoenaren arabera



Apunte bat gehiago, besterik ez da, lanpostuak berehala berritu behar direla berresten duena (aipatutako kasuan, 10 urte baino lehen erretiratuko dira %36).

b) Mugikortasun tasa handia ere kezkarria da. Ikasturte honetan maisu-maistren LPZko 9.725 plazen %45 behin-behinekoz beteta daude urtebeterako. Portzentaje honetan, %20 irakasle funtzionarioak dira, eta hauetan erdien baino gehiagoren plazak kendu dituzte. Hurrengo zerrenda lurraldeen eta hizkuntza eskakizunen arabera banatzen da (eranskineko 4. taula). Bertan ageri den bezala, arazo honek kualitatiboki beste bi lurraldeetan baino eragin handiagoa du Bizkaian.

Maisu-maistren kidegoko lanpostuen banaketa. 2004-05 eta 2005-06 ikasturteak\*.

	2004-05	2005-06
LPZko lanpostuak	9.725	9.725
Behin-behinekoz urtebeterako beteak	4.114 (42,3%)	4.447 (45,0%)
.Karrerako funtzionarioak	1.909 (19,6%)	1.899 (19,7%)
.Bitarteko irakasle egonkorak	826 (8,5%)	864 (8,8%)
.Ordezkoak	1.379 (14,2%)	1.684 (17,3%)

(\*) Iturria: CCOO

Horrenbestez, Euskadiko Eskola Kontseiluak beharrezko deritza Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako lanpostuak gehitzeari, hezkuntza zerbitzuaren kalitatea atxiki ahal izateko eta eskakizun berriei aurre egin ahal izateko. Gure aburuz, eskola porrota prebenitzeko, zenbat eta goiztiaragoak izan hainbat eta eraginkorragoak dira hezkuntza esku-hartzeak.



Bi urteko geletan, irakasle/ikasgelako ratioa 1,5era igo behar da, 2002-2004 txostenean genioen bezala. 0-3 urteko zikloaren finantzazioaren erregulazioak Haur Eskoletan ratio hau lortzeko aukera ematen du, eta ez du zentzurik, beraz, nagusiki 2 urteko maila ematen duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan finantzazioa txikiagoa izateak.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko geletan, 3 eta 5 urte bitartekoetan alegia, ikasgela bakoitzeko ikasleen batez besteko kopuruak gora egiten du urte-tik urtera. Honek esan nahi du, adibidez, 3 urteko ikasgelen laurdenak baino gehiagok 20 ikasle baino gehiago dituztela irakasle bakar baten ardurapean. Gehiegizkoa da eta hau dela medio, ikasleek jasotzen duten arreta eta irakasleen osasuna eta motibazioa kaltetuak suerta daitezke. Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzirako, baliabideak zentzuz banatuz gero, Haur Hezkuntzako 2. ziklorako lanpostuentzako irakasle kopurua gehitu egin behar da oro har, eta xede horretarako, batera lortu behar da batetik irakasle/ikasgelako ratioa handitzea (gaur egun 1etik hurbil dago), eta bestetik, ikasle/ikasgelako gehie-nezko kopurua jaiste a (gaur egun 23koa da).

Kontseiluaren ustez, zuzendaritza, antolakuntza, berrikuntza eta administrazio eginkizunak ordu gehiago esleituta indartu behar dira. Noiz edo noiz aurre egin beharko diogu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako administraziorako lanpostuen faltari, EAEko gainerako ikastetxe publiko zein pribatuetan ez da hala gertatzen, ezta gure inguru europarrekoetan ere. Osagarri gisa, Administrazio Kudeaketako Arduraduna (AKA) sortu zen, baina ordu kopuru txikiegiarekin eta tamaina jakin batetik aurrerako ikastetxeetan baino ez. Ikasturte hasierako zirkularrak ordu horiek are gehiago murriztu nahi ditu, baita zuzendaritza taldearenak ere. Ikastetxeen autonomia bultzatu nahi bada, haien antolakuntza ahalmena indartu behar izango da, eta horren isla izango da zeregin horiei emandako denbora. Halaber, irekitako berrikuntza il-doak kolokan utzi nahi ez badira, behar diren giza baliabideak hornitu beharko dira.

Inguruabar negatibo hauek, alegia, maisu-maistra lanpostuen adin handia eta egonkortasun eskasa, lanpostuok gehitzea aurreikusiko duen esparru batean jorratu beharko dira, lan eskaintza publikoen bitartez eta lanpostuak finkatzeko administrazioak bere eskumenekoak dituen mekanismoen bitartez.

Prozesu hau konplexua da eta ondorioak ditu aurrekontuetan, eta honen jakitun gaudela, Euskadiko Eskola Kontseiluak tartekoak diren alde guztiekin (irakasleak, ikastetxeak) negoziatzera bultzatu nahi du hezkuntza administrazioa, eta gure esku dagoen guztia eskaintzen dugu xede hori arrakastaz erdiesteko, eta geure esker ona adierazi nahi dugu ebazpen hau egiteko eman diguten laguntza guztiarengatik.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2.005eko urriaren 14an


IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz. : Eva Blanco

Ikus-onetsia  
LEHENDAKARIA

Iz. : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBU-  
RUA.



**ERANSKINA**

**1. taula. Matrikularen banaketa eta bilakaera 2 urteko mailan sare publikoan.**

	2002-03	2004-05	2005-06	$\Delta$ 3 urte	$\Delta$ azken urtea
Ikastetxe publikoak	7.274	7.866	8.377	%15,2	%6,5
Haurreskolak	0	144	141	--	-%2,1
Udalarenak	1.383	1.450	1.468	%6,1	%1,2
Publikoa guztira	8.657	9.460	9.986	%15,4	%5,6
Urteko jaiotzak	17.647	18.133	19.267	%9,2	%6,3
Matrikula % sare publikoan	%49,1	%52,2	%51,8	--	--

**2. taula. Unitate kopuruaren bilakaera (gelak), ereduaren eta zikloen arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan.**

			2004-05	2005-06	$\Delta$ azken ikasturtea
Haur Hezkuntza	2 - 5 urte	A	104	92	-%11,5
		B	334	325	-%2,7
		D	1.651	1.679	%1,7
		3 ere.	2.089	2.096	%0,3
Lehen Hezkuntza	1. zikloa	A	68	68	%0,0
		B	173	170	-%1,7
		D	710	732	%3,1
		3 ere.	951	970	%2,0
	2. zikloa	A	84	76	-%9,5
		B	176	176	%0,0
		D	652	688	%5,5
		3 ere.	912	940	%3,1
	3. zikloa	A	101	96	-%5,0
		B	182	177	-%2,7
		D	611	620	%1,5
		3 ere.	894	893	-%0,1
Haur eta Lehen H. guztira		A	357	332	-%7,0
		B	865	848	-%2,0
		D	3.624	3.719	%2,6
		3 ere.	4.846	4.899	%1,1

3. taula. Asteko orduak zuzendaritza, kudeaketa eta administrazio lanak egiteko (30 orduko asteko lanaldia).

Unitate kopurua	Asteko orduak zuzendaritza taldearentzat eta AKarentzat		
	Dekretuaren arabera	Gehiena zirkularraren arabera	aldea
10	30	25	-5
12	30	30	0
14	45	35	-10
16	60	40	-20
18	75	45	-30
20	75	50	-25
22	75	55	-20
24	75	60	-15
26	75	65	-10
30	75	75	0
32	90	80	-10
34	90	85	-5
36	90	90	0
38	90	95	5

4. taula. Behin-behineko urtebeterako betetako maisu-maistren kidegoko lanpostuen banaketa, lurraldeen eta hizkuntza ereduaren arabera. 2005-06 ikasturtea\*.

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			EAE			EAE, 3 ereduak
	HE2	HE1	HE0	HE2	HE1	HE0	HE2	HE1	HE0	HE2	HE1	HE0	
Kenduak	9	1	40	374	27	408	17	43	80	400	71	528	999
Zerb. Egink.	110	14	48	95	2	44	105	14	9	310	30	101	441
Behin-behin.	1	3	12	210	27	143	36	12	15	247	42	170	459
Egonkorrak	83	3	2	499	13	5	252	7	0	834	23	7	864
Ordezkoak	0	0	0	1536	50	98	0	0	0	1.536	50	98	1.684
Guztira	203	21	102	2.714	119	698	410	76	104	3.327	216	904	4.447
	326			3.531			590						

(\*) Iturria: CCOO

## ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO ARDURADUNAREN EGINKIZUNAK (AKA)

Administrazio kudeaketarako irakasle arduradunaren (AKA) figurak zentzua du zuzendariaren arduren ondorioz sortzen diren zereginetan laguntzaile eta lankide izateko eginkizunak betetzean, Euskal Eskola Publikoaren Legean, 34. artikuluan jasotzen den bezala, eta bereziki ondoko hauekin lotutakoak:

- Gastuak egiteko baimena ematea, ikastetxearen urteko kudeaketa egitarauarekin bat etorriz eta ordainketak agintzea.
- Lan, zerbitzu eta hornikuntza hitzarmenak egitea.

Eginkizun hauek berekin dakartzate administrazio eta gestio ekonomikozko zereginak, eta zuzendariaren gainbegiratu eta ardurapean burutuko dira edonola ere, ahaztu gabe halaber irakaslea den aldetik izan litzakeen zereginak, irakaskuntza zereginak alegia.

Horregatik, AKAk zuzendaritza lanetan laguntzeko beharrezkoak diren prozesuak hiruko esparru batean kokatzen dira:

### 1. Administratiboa

- Hezkuntza komunitateko sektoreei eta hornitzaileei harrera egin eta informazioa ematea.
- Telefono deiak, faxa, posta elektronikoa jaso eta informazioa bideratzea.
- Posta jasotzea, sailkatzea, erregistratzea eta banatzea.
- Ikastetxeko inbentarioaren kontrola.
- Erreprografia materiala erabiltzea eta zaintzea.
- Idazkiak, gutunak, ziurtagiriak, oharra, zerrendak eta abar makinaz idaztea.
- Ikasleen espedienteak eta eskola liburuak ireki eta eguneratzea.
- Datuak dagokien administraziora bideratzea.
- Ordezko, irakasle eta irakasle ez diren lanpostuetarako eskabideak egitea.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara altak, bajak eta langileen hutsegiteen baieztapenak bidaltzea.

### 2. Ekonomikoa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Autonomia Ekonomiko-Finantzarioari buruzko Gidaliburuaren bitartez garatzen duen autonomia finantzarioaren gestio ereduari lotutako eginkizunak.

Urteko kudeaketa programa erreferente nagusi bihurtzen da, izan ere, xedapenen artean, ikastetxearen aurrekontua jasoko du, eta bertan deskribatuko ditu funtziona-

menduzko eta ekipamenduzkoak gastuak, hala nola inbertsioak eta gastu hauei aurre egiteko baliabideak.

Aurrekontuak, Ikastetxeari dagozkiokeen diru-sarrerak eta gastuak jaso behar ditu aurreikuspen gisa, Kontabilitate Publikoaren plan orokorrean zehazten den bezala, izan ere, honek, ekintzetarako denbora batzuk finkatzen ditu urte naturalean zehar, eta xede horretarako honako eginkizunak bete behar dira:

- Erabiltzeko aurrekontua egitea.
  - √ Ikastetxearen premiek dute lehentasuna.
  - √ Diru sarrerak sailkatzea.
  - √ Gastuak sailkatzea.
- Aurrekontua aldatzea.
  - √ Gastuen edo eta diru sarreren gehikuntza positiboa edo negatiboa.
  - √ Kredituak birbanatzea.
- Aurrekontua gauzatzea.
  - √ Kontratazioak eta materiala erosteko proposamenak prestatzea.
  - √ Ordainketak egitea.
  - √ Erregistro liburuetan idatziz jasotzea.
  - √ Gauzatzearen egoeraren laburpena egitea.
- Aurrekontuaren berri ematea.
  - √ Aldian-aldian dokumentazioa betetzea:
  - √ Urtean erabiltzeko aurrekontua.
  - √ Gauzatutako gastuaren egoeraren laburpena.
  - √ Diruzaintzaren azterketa.

### 3. Didaktikoa

Ikastetxean sor litezkeen irakaskuntza eremuko beharrei erantzuna ematea (irakasle arruntei laguntzea, irakasleak ez egoteagatiko ordezkapenak, hezkuntza indargarri premiak, errekupeazioak...) gainerako irakasleen baldintza berdinetan eta aipatu-tako jarduera ekonomiko eta administratiboek behar duten arretari kalterik egin gabe.

## TEKNOLOGIA BERRIAK - IKT PREMIA PLANA

Ikastetxeko Premia programako arduradunak, zuzendaritzarekin lankidetzan, honako eginkizunak izango ditu ikastetxeko Premia instalazioen esparruan:

### 1. Jarduera eremua: ikastetxeetako informatika eta multimedia sistemak.

- Ikastetxeko Premia instalazioen eta ekipamenduen funtzionamendu egokia gainbegiratu eta kontrolatuko du.
- Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzak zehaztutako prozedurei jarraikiz, instalazio hauen inguruan ematen zaizkion zeregin guztiak egingo ditu.
- Solaskide jardungo du mantentze lanetako enpresekin, ekipamendu eta komunikazio hornitzaileekin, hala nola saileko informazio sistemen zerbitzuarekin, eta haren mende egongo da xede teknikoetarako.

### 2. Jarduera eremua: IKT dinamizatzailerak.

- Ikastetxearen urteko plana bateratu eta dinamizatuko du, IKTei dagokienez.
- Baliabide informatikoak eta multimedia sistemak dauden tokietan erabilera arauak zehazteko proposamenak egingo ditu.
- Ikastetxearen urteko planean sartzeko, informatika eta ikus-entzunezko baliabideei buruzko urteko lan programa proposatuko dio zuzendaritzari haien erabilera didaktikorako, hala nola etapen eta arloen araberrako txostenak eta ikastetxeko txosten orokorra taxutzea koordinatuko du ikastetxearen urteko planaren ebaluazioan sartzeko.
- Taldeek baliabide informatikoen erabilera koordinatzeko eta IKT programa garatzeko programazioak finkatzeko etapaka eta arloka egindako bileretan parte hartuko du.
- Irakasleen parte hartzea bultzatuko du IKTak erabiltzeari eta curriculumean sartzeari dagokionean. Ekipoetan instalaturik dauden hezkuntza programen berri emango die irakasleei eta jarduera eta maila bakoitzerako zein den egokiena jakinaraziko die.
- Irakasleek IKTei buruz duten jakintza maila aztertuko du, eman lezakeen prestakuntzari begira, edo eta prestakuntza kontratatzeko ikastetxean bertan emateko.
- Berritzeguneetako IKTei buruzko aholkulariekin zehaztuko diren teknika eta prestakuntza arloko harremanak edukiko ditu.